

Ikasturte hasierako guraso bilera orokorra

- LH2 -

Orereta-Errenterian, 2025eko irailaren 22an

1. METODOLOGIA

LH 1. mailan hasitako bideari jarraipena emanez, bigarren mailan ere iazko egitura pedagogiko berak mantenduko ditugu, mailari dagozkion eduki eta helburuetara egokituz. Alde batetik, ikasleak era autonomoan aritzeko uneak eta guneak diseinatu ditugu, erabakiak hartzen eta euren burua erregulatzen ikas dezaten. Bestetik, irakasle taldeak proposatutako proiektuak, taldeka zein bakarka, gauzatu beharko dituzte euren ikasketa prozesua garatzen laguntzeko helburuz.

2. EBALUAZIOA

Ikaslearen heziketa prozesua konpetentzietan oinarrituta ebaluatuko da. Ikasturtean zehar bi informe jasoko dira ikasleen lorpenak, garapena eta hobetzekoak islatuz. Informe idatzi horiek Inika bidez helaraziko dira, bata urtarilaren azkeneko astean eta bestea ekaineko azken eskola egunean.

Informeeetan funtsezko konpetentziak zein arloetako konpetentzia espezifikoak ebaluatuko dira.

Honakoak dira ebaluatuko diren **funtsezko konpetentziak**:

- **Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia**

Ahoz eta idatziz ondo adierazteko gaitasuna da, besteei ulertu eta beren ideiak argi azaltzekoa. Norberaren pentsamendurako eta jakintzaren eremu guztietan ezagutza eraikitzeke oinarria da.

- **Konpetentzia eleaniztuna**

Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gaitasuna da, hizkuntza ezberdinetan komunikatzeko eta beste kultura batzuk ulertzekoa. Konpetentzia horrek esan nahi du norberaren hizkuntza-profilak aitortu eta errespetatu behar direla.

- **STEM konpetentzia**

Mundua ulertzea dakar berekin; metodo zientifikoak, pentsamendu eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniari-tza-metodoak erabiliz ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.

- **Konpetentzia digitala**

Teknologia modu arduratsuan eta seguruan erabiltzea da, informazioa bilatzeko, sortzeko eta komunikatzeko.

- **Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa**

Nork bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna da, nork bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzeko; beste

batzuekin modu eraikitzailean lankidetzan aritzekoa; erresilientziari eustekoa; eta bizialdi osoko ikaskuntza kudeatzekoa.

- **Herritartasunerako kompetentzia**

Besteekin modu baketsuan eta arduratsuan bizitzen jakitea da: enpatia, errespetua eta lankidetzaren sustatzea.

- **Ekintzailetza kompetentzia**

Ideiak izatea, horiek gauzatzeko planak egitea eta ekimena izatea da. Ez da soilik enpresa egitea, baizik eta sortzailea eta aktiboa izatea.

- **Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia**

Artea, musika edo kultura-adierazpenak baloratu eta norberak bere sormena garatzeko gaitasuna da. Ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea, baita hainbat arteren eta beste kultura adierazpenen bidez ere.

Aurreko funtsezko kompetentziak lortzeko, ikasleek arloetan egingo dute lan. Horietako arlo batzuk ebaluagarriak izango dira, hona hemen informeeetan agertuko diren **arloak**:

- **Euskara eta literatura**

Euskarazko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.

- **Gaztelania eta literatura**

Gaztelaniazko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.

- **Atzerriko lehen hizkuntza**

Ingelesezko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, ingelesez, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.

- **Matematikarako kompetentzia**

Jakintza matematikoa erabiltzea da bizitzako beharrezkoen dagozkien arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko.

- **Natura, gizarte, kultura ingurunearen ezagutza**

Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza arloa ulertzen da haurrak pertsona guztiekiko eta bizi diren munduarekiko konprometituak, arduratsuak eta errespetuzkoak izatera iristea helburu duen esparru gisa, natura-zientzien, gizarte-zientzien, geografiaren, historiaren eta kulturaren funtsezko alderdiak ezagutzea oinarri hartuta.

- **Arte komunikaziorako kompetentzia**

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoan balioestea da. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta nork bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.

- **Heziketa fisikoa**

Norberaren eta gainerakoen jardun-eremu motorreko egoerak sormenez eta adierazkortasunez lantzea da. Jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarrian oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko.

Informeez gain, LH 2. mailako tutoreak bi aldiz elkartuko dira ikasleen familiekin euren seme-alabaren ikasketa prozesua gertutik jarraitzeko asmoz:

- **1. bilera:** azaroko azken astetik abenduko oporretara bitartean egingo dira. Bilera horren xedea familiak eta tutoreak elkar ezagutzea, elkarren arteko konfiantza sendotzea, eta ikaslearen egokitzapenaren berri ematea izango da.
- **2. bilera:** maiatza eta ekaina artean egingo da, maila bukaerako ikaslearen gaitasunei buruz aritzeko.

3. ARLOAK

3.1. ZIRKULAZIO AUTONOMOA

Asteaz zehar hiru orduz izango dute zirkulazio autonomoaz gozatzeko eta ikasteko aukera. Metodologia honekin, ikasleak erabakiak hartzen ikastera bultzatu nahi ditugu; euren burua erregulatzen ikasiz eta autonomia garatuz. LH 2. mailako ikasle guztiak elkarrekin ibiliko dira zirkulazio autonomoan. Espazio bakoitzean diziplina jakin bateko proposamenak topatuko dituzte.

- **Gune lasaia eta ludikoa:** Ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz diseinatutako txokoak dira eta bertan hainbat zeregin aurkituko dituzte; pentsamendu matematikoan zein irakurketa eta idazketa prozesuan aurrerapausoak eman

ditzaten. Testu propioen sorkuntza bultzatuko da, duten idazketa maila dutela ere. Gune bat lasaia izango da eta besteak, aldiz, ludikotasuna eta jolasa izango ditu helburu.

- **Sormen gunea:** Hainbat diziplinetako (plastika, musika, zientzia, esperimentazioa...) materialez hornitutako txokoak izango dituzte; material horiekin esperimentatzea eta euren sormena piztea izango da helburua.

3.2. PROIEKTUAK

Nagusiki, euskara eta literatura, zientzia, eta gizarterako eta herritartasunerako kompetentziak garatzen laguntzen digun materiala da Txanela. Ikasleek, oro har, oso gustuko dituzten gaiak aukeratzen ditugu mailari dagozkion edukiak eskuratu eta kompetentziak garatu ditzaten. Irakasle taldeak gai hauek proposatuko dizkiegu ikasturtean zehar:

- **Greziatik Erromara** Gabonak bitarte bi zibilizazio hauen ezaugarriak ezagutzen arituko gara. Garai bakoitza aztertzez amaitutakoan, proiektu bana burutu beharko dute, biek ala biek ohitura osasuntsuez jabetzea izango dutelarik helburu. Greziarren garaian, Olinpiar Jokoak antolatu beharko dituzte eta Erromatarrenean, aldiz, garai hartako elikadura kontuan hartuta, hamaiketako prestatu beharko dute.
- **Nolako txabola!** Denboraren makina hartuta, aurrera egin eta Erdi Arora bidaiatuko dugu. Garaiaren ezaugarriak aintzat hartuz, ikasleek, taldeka jarrita, garaiari buruzko maketa bat sortu beharko dute eta gaiaren inguruko antzerki bat asmatu.
- **Hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei...** Lehenbizikoz, Lur planetatik aldendu eta unibertsoa aterako gara espazioa aztertzerako eta gure planeta nolakoa den ikertzerako. Bidaia zirrargarri hori amaitzean, lurreratu eta eguzki-sistema edo ikasleek sortutako sistema bat sortu beharko dute.

3.3. IRAKASGAIAK

ARTE HEZKUNTZA

Arte hezkuntzako saioetarako, Arno Stern eta Karl Orff teoriak hartu ditugu oinarri gisa. Haien ideiak aintzat hartuz, ikasleek barruan dutena adierazteko baldintza egokiak eskaintzea da gure egitekoa (espazioa, materiala, giro atsegina), eta ikerketa eta esperimentaziorako aukerak ematea.

GORPUTZ HEZKUNTZA - PSIKOMOTRIZITATEA

Lehen Hezkuntzako saioetan ekintza motorrak psikomotrizitate egoeretatik ingurune fisiko egonkorretan egiten diren jardueretara egiten du jauzia, batik bat, jolas arautua, norbanako

gorputz eskemaren lanketa eta gorputz adierazpena edo erritmoa aintzat hartuz.

BASO ESKOLA

Añabitarten dugun inguru paregabeari esker, baso eskolan aritzeko aukera dugu; gutxienez hilean behin goiza gure basoan igaroz. Baso eskola naturan garatzen den hezkuntza saioa da. Haurrek basoan edo ingurune naturalean jolastu, ikertu eta ikasten dute. Helduek behatzaile papera jokatzen dute bertan, haurrak lagunduz, ez gidatuz.

INGELESA

“The adventures of Hocus and Lotus” materiala erabiliz, ikasturtean zehar ikasleak sei istoriotan murgilduko dira. Helburua ipuinetan, abestietan eta jolasetan ikasitako esaldi egiturak bere egin eta horiek egunerokotasunean txertatzen joatea izango da. Ipuinetan eduki desberdinak landuko dituzte: asteko egunak, oihaneko animaliak, errimak, maskotak, gaixotasunak eta oporrak, adibidez.

MATEMATIKA


Innovamat proiektuarekin, manipulazioan oinarritzen diren jarduerak proposatuko dizkiegu ikasleei, ondoren abstrakziorako bidea egiteko gaitasuna gara dezaten. Astean lau saio izango dituzte. Bi saiotan (zenbakien laborategia) zenbakikuntza eta eragiketak landuko ditugu. Beste saio batean (abenturak) geometria, logika, estatistika eta neurriak jorratuko dira. Azken saioan App-a erabiliko dugu beste saioetan ikasitakoa sistematizatzeko helburuarekin.

TUTORETZA

Tutoretza eta orientazioa jarduera multzo bat da, bai gela barruan bai kanpoan landuko dena, eta ikasleei bere garapenean lagunduko diena, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketak aurrera eramaten (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

Aniztasunari erantzuna

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko neurri eta programa multzoa da, oinarritzko kompetentziak ahalik eta gehien garatzen laguntzeko.



KOMUNITATE PROIEKTUA

Irakasgai honen helbururik nagusia, kompetentzia sozialak eta zibikoak garatu eta horien bitartez komunitateari ekarpena egitea da. Saio hauetan, gure inguru sozialarekin

zerikusia duten gai eta ekimen desberdinak landu eta aurrera eramango ditugu, besteak beste, Gau Beltza, Blaituko jarduerak, martxoak 8, Agenda 30...

4. ETXETIK LAGUNDUZ

Familien laguntza ezinbestekoa dugu ikasleen hezkuntzan eta, maila honi dagokionez, jarrera arduratsua eta autonomia garatzen jarraitzea oinarritzkoa da. Horregatik, honako puntu hauetan arreta berezia jartzea eskatzen dizuegu:

ASTEKO ANTOLAKETA

- Zein egunetan izango duen baso eskolako saioa, psikomotrizitatea... konturatzen laguntzea beharrezkoa dute. Egun horietarako zein arropa beharko duten prestatzen laguntzea beharrezkoa da.
- Etxera oharrak eraman duten ikusi eta hurrengo egunerako motxila eta arropak prestatzea beharrezkoa izango dute.
- Txoko txurirako liburu eta informazioa aurrez elkarrekin prestatzea beharrezkoa izango dute.

MOTIBAZIOA

- Gelan lantzen diren gaiekiko interesa erakutsi.
- Ikasturtean zehar izandako aurrerapena baloratu eta goraipatu.

EUSKARAREN ERABILERA

- Euskal komunikabideak kontsumitzera eta aisialdian euskarazko jarduerak egitera animatu.

AUTONOMIA

Bai Ikastolako jardueretan, bai eguneroko bizitzan, beraiek ardurak hartzea:

- Sortzen diren arazoei aurre egin.
- Zailtasunen aurrean jarrera baikorra eta aktiboa izan. Beraiek bila ditzatela soluzioak, betiere gure laguntza eskainiz behar dutenean.

Autonomiarantz eman beharreko prozesua progresiboa eta pertsonala da.

ARTE HEZKUNTZA

- “Ongi dago/gaizki dago”, “marrazki ona/txarra”, “polita/itsusia” bezalako komentarioak ekidin, prozesua oztopatu baitezakete. Horrelako komentarioekin, ikasleen lana epaitzen ari gara. “Gustura zaude?”, “ongi pasatzen ari zara?” bezalakoak erabili.

- “Zer da hau?”, “zer ari zara marrazten?” bezalako galderak saihestu, ikasle bakoitzaren faseak errespetatuz (kasu batzuetan, sortutako irudiak ez baitu ezer adierazteko helbururik).
- Konparaketa, lehia eta epaiketak saihestuko dituen testuingurua sortu. Ikasle bakoitzak bere erritmoa du, bere egitekoa, bere interesa... eta beraz, horiek guztiak ezin dira elkarrekin konparatu.
- Bakoitzari nahi duena adierazteko aukerak eskaini, muga eta epaiketarik gabe.

"Haur bakoitza artista da, kontua da artista izaten jarraitzea hazten zoazen heinean". (Pablo Picasso)

IRAKURZALETASUNA

Irakurzaletasuna etxean bultzatzeko gomendioak:

- Gurasoak seme-alabentzako eredu izan.
- Irakurketa afektibitatearekin lotu.
- Gurasoek istorio asko kontatu: gurasoen benetako istorioak.
- Eguneroko egoerez baliatu irakurtzeko, dituzten afizioak aprobetxatu.
- Liburutegira joan noizbehinka. Bazkide egin.
- Liburu dendetara edota azoketara joan eta liburuak beraiek aukeratu.
- Etxean liburuak eskura izan, nahi dutenean hartzeko.
- Kalitate literarioa duten ipuinak eskaini (Galtzagorri elkartearen eskutik liburu gomendioak: <https://www.galtzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura>)
- Nahiz eta irakurtzen jakin, beraiekin irakurtzen jarraitu, irakurketa partekatu.
- Irakurketarako giro egokia bermatu.
- Lagunen artean liburuak trukatu.
- Libururik ez debekatu.
- Irakurtzen dutenaren gaineko interesa azaldu eta guk irakurtzen dugunaren inguruan komentarioak egin.

5. ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

5.1. HELBURUAK

Orientazioa etengabeko laguntza prozesua da eta helburu du ikasleei oinarritzko kompetentziak eskuratzen eta bere proiektu pertsonala garatzen laguntzea.

Horiek horrela, Orereta Ikastolako orientazio departamentuaren eginkizun nagusia hezkuntza orientazioa sustatzea da, curriculum osoan eta ikasle guztiekin. Departamentu honen jarduna bi prozesutan gauzatzen da, gehien bat: Tutoretza eta orientazioa, eta aniztasunari erantzuna (ikus “3.3. Irakasgaiak: tutoretza” atala)

6. PROIEKTUAK

6.1. HIZPRO–EUSKARAZ BIZI

Orereta Ikastolaren sorrera-helburuak euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Etengabeko jarduerak eta kanpainak aurrera eramanez, helburua betetzeko zailtasunak agerikoak dira Orereta Ikastolan eta euskararen lurralde osoan.

Orereta Ikastola arnagune bat dela jakin arren, asko dugu egiteko. Badira urte batzuk, ikasleak euskararen normalizazioan protagonista izendatu genituela. Euskaraz Bizi egitasmoa berrikusi eta, ikasleen aitzindaritzaz suspertuz, dinamika desberdinak jarri genituen indarrean.

Ikasleak

BLAITU euskara taldea abian da orain urte batzuetatik hona gela bakoitzeko ordezkariekin. Bertan aztertu eta diseinatu dira etapa osorako indarrean jarritako jarduerak eta ekimenak. Beraz, euskararen erabilera sustatzeko, ikasleen motibazioa areagotu eta kalitatea hobetzeko egitasmoa da BLAITU euskara taldea. Horrez gain, 2025-26 ikasturtean proiektu berriak diseinatu eta martxan jarriko dira ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko eta horien motibazioan eragiteko.

Langileak

Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu euskararen erabileraren alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Familiak

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntz erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu.

Guraso euskaldunek beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntz erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza bizitzaren esparru guztietan.

Guraso erdaldunek ere, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak, adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positiboan eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira.

Juul kanpaina

2025-2026 ikasturtean Juul kanpaina jarriko da martxan. Helburua irakurzaletasuna sustatzea da. Ikastetxe bakoitzak bere etaparako liburu zerrenda bat egiten du, liburu horiek erosten dira eta ikasleak liburu horiek irakurtzen joango dira. Liburuaren Eguna

hurbiltzen denean bozketa bat egiten dute. Bozka horien emaitzak Juul kanpainaren arduradunari bidaltzen zaizkio.

6.2. ZUBIAK ERAIKIZ

2016ean sinatu genuen Zubiak Eraikiz hitzarmena Ipar Euskal Herriko lau ikastolarekin. 2024ko ekainean zortzi Ikastolak beritu genuen: Hendaia Gure Ikastolak, Ziburuko Kaskaroteneak eta Piarres Larzabal kolegioak, Biriatuko Ikastolak, Berako Labiaga Ikastolak, Lesakako Tantirumairuk, Elizondoko Baztan Ikastolak eta Orereta-Oiartzo Ikastolak.



Hitzarmenaren helburua

Lurralde administratibo ezberdinetan kokatuta egonik, zubi bat eraikitzea elkarrengana hurbiltzeko. Horregatik, gure Ikastoletako ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak harremanetan jarri nahi ditugu, euskara ardatz hartuta; Lapurdiko, Nafarroako eta Oarsoaldeko eremu euskalduna osatzen dugun pertsonen arteko loturak indartzeko eta elkarrekin hainbat arlotako ekintzak aurrera eramateko.

7. BARNE ARAUDIA: ZENBAIT OHAR

7.1. ASISTENTZIA

Ikasleen Eskubide eta Betebeharrak dokumentuko 23. artikuluan oinarrituta, ikuskaritzatik eman dizkiguten jarraibideak jarraituz, hona hemen hutsegiteak justifikatzeko erabiliko dugun era:

- Klaseetara joatea derrigorrezkoa da. Klaseetara huts egitea kasu guztietan komunikatu beharko da. Jarduera osagarriek eta eskolaz kanpoko ekintzek hezkuntza jarduera arrunten kontsiderazio bera dute, hutsegiteak komunikatzeko prozedurari dagokionez.
- Ikasleek etortzerik ez dutenean, ahal den guztietan, gurasoek edo legezko arduradunek Inikaz jakinarazi behar dute.
- Gurasoei dagokie seme-alaben hutsegitearen berri ematea; tutoreari, berriz, ontzat jotzea. Zalantzarik izanez gero, etapako zuzendaritza taldeak erabakiko du onargarria den ala ez.
- Hutsegitea onartezina denean, familiari jakinaraziko zaio. Udaleko gizarte zerbitzuei eta ikuskaritzari hutsegiteen berri ematera behartuta gaude.

7.2. OSASUN ARRETA

- Ikastolan ez diegu ikasleei botikarik emango, medikuaren agiririk gabe.
- Ikasleren bat gaixotuko balitz, gurasoei deituko zaie, eta haiek etorri beharko dute ikaslearen bila.

- Larrialdi egoera bat jazoko balitz, larrialdi zerbitzuei hots egingo zaie Ikastolatik, baita gurasoei ere.
- Gaixotasun kronikodun ikasleentzako protokolo bat dugu. Ikasleren baten kasua balitz (asma, medikazioa hartu beharra, krisialdiak...), tutoreari jakinarazi beharko zaio, berak protokoloa martxan jar dezan.
- Ikasleren batek alergia-rik edo janari batekiko arazoren bat baldin badu, sendagilearen ziurtagiria Inikaz (mezularitzatik) bidali behar da idazkaritzara.

7.3. ESKOLA-ORDUZ KANPOKO MOMENTUAK (EGUERDIAK ETA ARRATSALDEAK)

- Eskola-ordutegia hasi aurretik (9:00ak baino lehen) eta amaitzean (16:30ean) ikasleak Ikastolako eremuan gelditzen badira, gurasoen ardurapean izango da. Eskolaz kanpoko jardueretan bertako monitoreek izango dute zaintzaren ardura.
- Gurasoek eskola ordutegia amaitu aurretik seme-alaben bila etorri behar badute, gelaraino joan beharko dute.